



ALDIZKAKO FORMAKUNTZA

Zerbitzuaren garapen eta kudeaketa arduraduna

Ipar Euskal Herriko auto-partekatze kooperatibarekin bat egin eta parte har ezazu trantsizio ekologikoan, mugikortasun arloan eraginez, eta ekonomia sozial eta solidarioaren baloreak partekatuz: interes kolektiboa eta kooperazioa.

LURRALDEKO HERRITAREN EKIMENA

Aupa 2022 bukaeran sorturiko Interes Kolektiboko Kooperatiba da, auto-partekatze zerbitzu bat proposatzen duena Ipar Euskal Herrian eta Landetako hegoaldean.

Gure eginkizun nagusia: autoaren erabilera apaltzea, erabilera puntual bat sustatuz: partikularrentzat eta profesionalentzat auto batzuk eskuragarri emanez, oren edo egun batzuetarako, eguneko 24 orenetan.

Aupa Frantzian azken 25 urte baino gehiagotan auto-partekatzea sustatzen duen Citiz sareko kide da.

Gaur egun, taldea handitu nahi dugu (kooperatibako zuzendaritza orokorraren ondoan), zerbitzua eta haren kudeaketa garatzeko.

Bulegoa Baiona Ttipian dugu eta ekonomia sozial eta solidarioko beste eragile batzuekin partekatzen dugu (Euskal Moneta, Bihar, Terre Buissonnière eta Bai Euskarari). Ingurumen gazte eta dinamikoan, aldizkako formakuntzan den langile berria eginkizun anitzetan trebatzen ahalko da, lagundua eta inguratua izanez.

ZURE EGINKIZUNAK

Ondoko eginkizunetan formatu eta trebatuko zara:

- Bezeroen kudeaketa: telefono bidezko harrera, e-mail kudeaketa, izen-emateen kudeaketa eta bezeroen laguntzea;
- Autoen kudeaketa: andeatzeak, ibilgailuen mugitzea noizbehinka, mantentze planaren kudeaketa.

Orokorkiago, ESS saileko egitura bateko misioak eta ardurak, kooperatiba-eredu barnean.

Bereziki zure jakintza eta laguntza ekarriko dizkiezu zuzendariari eta komunikazio arduradunari zerbitzuaren garapen jarduerari buruz:

- Erabiltzaile partikularren kopuruaren garapenean merkataritza ekintzen bidez,
- Erabiltzaile profesionalen multzoaren garapen eta jarraipenean,
- Partzuergoen sortzean,



- Komunikazio eduki eta euskarrien sorkuntzan parte hartzean,
- Geltoki berrien irekitzean eta flotaren garapenean parte hartzean.

BILATZEN DEN PROFILA

Trebetasunak	Jendetasun arloan
Idazteko gaitasuna	Harremanetarako gaitasunak, pedagogia eta jarraitutasuna
Bulegotika tresnen menperatzea (Internet, Word, Excel, Powerpoint...)	Gaitasun aniztasuna eta engaiamendua
Euskararen ezagutza abantaila bat litzateke (ahozkoan eta idatzian)	Autonomoa eta proposamenak aurkezteko gai izatea
B gida-baimena beharrezkoa	Antolaketarako gaitasuna, zorroztasuna

LAN-BALDINTZAK:

- Aprestuzko kontratua (2 egun eskolan / 3 egun enpresan idealki)
- Kontratuaren hastapena: berantengatik 2026ko iraila
- Lantokia: Baiona, Cordeliers karrika 38
- Lan-eremua: Baiona-Angelu-Miarritze eta inguruak
- Lansaria: araututako taularen arabera
- Abantaila: garraio publikoak edo bizikleten alokatze tituluak urrik

Enpresaburu gogoia baduzu eta balore azkarrak dituen kooperatiba berritzaile batean inplikatu nahi bazara (garapen iraunkorra, ekonomia sozial eta solidarioa), kuriosa eta motibatua bazara eta izpiritu kritikoa baldin baduzu, postu hau zuretzat egina da!

– CVa + motibazio gutuna igortzeko: aupa@citiz.fr, maiatzaren 30a aitzin–